

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 18an hartutako erabakiaren laburpena: Genero-berdintasunaren alorrean proiektu eta ekintzak garatzeko diru-laguntzak emateko deialdia. 2021 urtea**

BDNS(Identif.): 543576

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

#### **Lehen. Onuradunak**

Emakumeen elkarteak, kolektibo feministak eta LGTBI, eta beren jarduera garatzen duten eremuan (kirola, hezkuntza, arlo soziala, kulturala, etab.) genero-berdintasuna sustatzeko proiektuak edo jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Pertsona juridiko edo entitateek Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian izena emanda egon beharko dute, eta datuak eguneratuta eduki, edo, bestela, dagokien erregistro publikoan, eta Vitoria-Gasteizen eduki beharko dute egoitza (hala agertu beharko du erregistroan jasota), behar bezala justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik. Era berean, Vitoria-Gasteizko udalerrria izan beharko dute jarduera-eremua; azken urtean udalerrian gutxienez jarduera bat egin dutelarik egiaztatu ahal izango dute hori, sortu zirenetik urtebete igaro gabekoak salbu.

#### **Bigarrena. Helburua**

Talde feministak eta LGTBI eta emakume-elkarteak indartzen laguntzea, ikuspegi feminista argia duten proiektuak finantzatzuz. Beste erakunde batzuen proiektuak bultzatzea, beren jarduera garatzen duten eremuan (kirola, hezkuntza, arlo soziala, kulturala, etab.) genero-berdintasuna sustatzeko.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 18an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 60.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

20 lanegun laburpen hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 18a

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria*  
**ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO**